

INDUSTRIA-PRODUKZIOAREN INDIZEA. 2025eko EKAINA

Euskal Autonomia Erkidegoko industria-jarduera % 1,6 murriztu da 2025eko ekainean


Aurreko hilaren —2025eko maiatza— aldean, industria-produkzioa % 0,4 handitu da

Eustaten datuen arabera, 2025eko ekainean Euskal Autonomia Erkidegoko industria-produkzioa aurreko urteko hil berean izandakoa baino % 1,6 txikiagoa izan da, lan-egutegi homogeneoari dagokionez.

Aurreko hilabetearekin alderatuz gero, Euskal Autonomia Erkidegoko industria-jarduera % 0,4 handitu da azken hilabeteen, urtaroen eragina zuzendu ondoren.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera, *Kontsumo-ondasunetan* produkzioak urte arteko portaera negatiboa izan du 2025eko ekainean, eta produkzioa % 1,0 murriztu da sektore osoa kontuan hartuta. Jaitsiera hori batez ere *Kontsumo ez-iraunkorreko* ondasunen portaerak eragin du, horien produkzioa % 1,8 jaitsi baita; izan ere, *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* produkzioa % 2,2 handitu da. *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* artean, besteak beste, altzarien eta etxeko tresnen fabrikazioa sartzen da. *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* artean, bestalde, elikagaiak prozesatzeko eta kontserbatzeko jarduerak, garbiketa- eta higiene-produktuen fabrikazioa, farmazia-produktuak eta janzteko arropen produkzioa agertzen dira.

Ekipamenduko ondasunen produkzioa (ibilgailu motordunen fabrikazioa, tren-makinen eta trenbide-materialen eraikuntza eta aeronautikaren edo itsasontzien eraikuntza barne hartzen dira) % 0,5 jaitsi da aurreko urteko ekainaren aldean.

Bitarteko ondasunetan (metalurgia eta metalezko produktuen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa barne hartzen dira) produkzioa % 1,6 jaitsi da urte artean.

Azkenik, *Energiaren* produkzioa % 7,4 jaitsi da 2025eko ekainean, aurreko urteko hil beraren aldean. Sektore honetan sartzen dira energia elektrikoaren produkzioa eta hornidura eta petrolioaren fintzea.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea. Sektore A38 nagusiak (1). Urte arteko hazkunde-tasa (p). Ekaina 2025

	m / m-12
Elikadura ind., edariak, tabakoa	-1,2
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-6,8
Kautxua eta plastikoak	3,6
Metalurgia eta produktu metalikoak	-3,3
Materiala eta tresna elektrikoak	3,1
Makineria eta tresneria	-2,3
Garraio-materiala	1,8
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	2,4

(p)Behinbehineko datuak

Egutegi eraginak zuzendutako datuak

(1)Euskal AEko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Data 2025eko Abuztuaren 4a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2025eko ekainean Industria-produkzioaren indizearen urte arteko bilakaera negatiboa izan da Araban (% 5,9 murriztu da) eta Bizkaian (% 1,3 murriztu da) urte arteko terminoetan. Gipuzkoan, aldiz, produkzioak urte artean % 0,5 egin du gora.

Maila bereziagoan, Euskal AEko industrian pisu handiena duten sektoreen artean, 2025eko ekainean, urte artean, produkzioaren hazkuntza handiena hauek izan dute: *Kautxua eta plastikoak* (% 3,6) eta *Material eta ekipo elektrikoa* (% 3,1). Aldiz, produkzioaren urte arteko murrizketa nabarmenenak *Zura, papera eta arte grafikoak* (% 6,8) eta *Metalurgia eta produktu metalikoak* (% 3,3) sektoreetan izan dira.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea lurralde historikoaren eta ondasunen helburu ekonomikoaren arabera. Aldakuntza-tasak (p). Ekaina 2025

	Egutegi eraginak zuzendutako datuak		Datu desestazionalizatuak
	m / m-12	Am / A(m-12)	m / m-1
Indize orokorra			
Euskal AE	-1,6	-1,3	0,4
Araba/Álava	-5,9	-3,7	-1,5
Bizkaia	-1,3	-1,3	1,1
Gipuzkoa	0,5	0,0	0,7
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK			
Kontsumo-ondasunak	-1,0	1,1	-0,1
Kontsumoondasun iraunkorrak	2,2	-2,1	2,2
Kontsumoondasun ez-iraunkorrak	-1,8	1,9	-0,7
Ekipo-ondasunak	-0,5	-0,6	0,0
Bitarteko ondasunak	-1,6	-1,9	0,4
Energia	-7,4	-6,6	7,9

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Am / A(m-12) Urte arteko aldakuntza-tasa, urtarrietik behatutako azken hilera arte metatutako aldian (Am), aurreko urtean pilatutako aldi beraren (A(m-12)) aldean

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

Data 2025eko Abuztuaren 4a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2025eko EKAINEN BALANTZE METATUA

Urteko lehen sei hilabeteetako balantze metatua, Industria-produkzioaren indizea % 1,3 jaitsi da. Ekainera arte metatutako produkzioa % 6,6 jaitsi da *Energian*, % 1,9 *Bitarteko ondasunetan* eta % 0,6 *Ekipamenduko ondasunetan*, aurreko urteko aldi metatu beraren aldean. *Kontsumo-ondasunen* sektoreko produkzioa, aldiz, % 1,1 igo da.

Lurralde historikoen arabera, 2025eko lehenengo sei hilabeteetako balantze metatua balantze negatiboarekin itxi da Araban eta Bizkaian, produkzioa % 3,7 eta % 1,3 jaitsi baita, hurrenez hurren. Gipuzkoan, aldiz, produkzioa berdin mantendu da, aurreko urteko aldi metatu beraren aldean.

INFORMAZIO-OHARRA

Ekaineko Industria-produkzioaren indizeak lanegunak zuzentzeko eta serieak desestazionalizatzeko eredu berriak ditu. Eurostaten gomendioei jarraituz, Eustaten *J-Demetra* softwarea erabiltzen da denbora-serieak tratatzeko, eta zehaztutako eredu estatistikoak berrikusten dira urtero, doikuntzaren egokitasuna bermatzeko. Berrikuspen horrekin bat etorri —egutegiaren eta urtaroen patroien ondorioen zenbatespenak aldatzea dakarrena—, informazio-multzo esanguratsu bat erantsi da, 2025eko aurretiko indizeak egiteko unean eskuragarri ez zegoena. Horrek, gainera, zenbatetsitako serie gordinak berriro kalkulatzeko ekarri du.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, hilabete honetako indizea lagingaren % **85,33**ko estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62